


Plastika eta Ikus-Hezkuntza



Orientabide
didaktikoak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURKIBIDEA

1. Dokumentuaren xedea	2
2. Irakasgaiaren ezaugarriak	3
3. Irakasgaiak oinarrizko gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena	5
4. Curriculumeko elementuen eta oinarrizko gaitasunen arteko harremana	14
5. Orientabide didaktikoak	18
5.1 Irakasgaiaren berezko metodologia	18
5.2 Irakasleen eta ikasleen egitekoa	21
5.3 Ikasgelaren kudeaketa	22
5.4 Lekua eta denbora	24
5.5 Baliabideak eta materialak	26
5.6 Jarduerak antolatzea	27
5.7 Edukiak lehenesteko irizpideak	29
5.8 Ebaluaziorako orientabideak	30
6. Materialen eta sekuentzia didaktikoen ereduak	33
7. Erreferentzia bibliografikoak	34

1. DOKUMENTUAREN XEDEA

Curriculumean oinarrizko gaitasunak sartzek hezkuntza berriro planteatzeko bidea ireki digu; horri esker, ikasleak jardunbideak garatzera bideratu ahal izango ditu ikasketak, eta egoera berriei aurre egiteko gaitasunak eskuratzera.

Hezkuntzak eman beharko lituzkeen emaitzak hezkuntza-aldiaren barruan irakasten diren irakasgaiekin zuzenean loturiko jakintza sorta lortzea baino gehiago dira. Baina irakasgaiak ez dira oinarrizko gaitasunak garatzeko eta lortzeko bide bakarra. Helburu bera lortzeko beste faktore batzuek ere parte hartuko dute; esaterako, ikastetxea antolatzeke moduak, jarduera osagarriek eta abar. Oinarrizko gaitasunak garatzeko lanean zeresana dute beste eragile batzuek ere; hala nola, familiak edo gizarteak berak, pertsonak ezin baitira oso-osorik garatu eskola-giroan bakarrik.

Ikasleen zein irakasleen funtzioa modu adierazgarrian aldatu behar da baterako ekintza hori eraginkorra izan dadin. Lehenengoen zeregina beren ikaskuntzaren eraikuntza kudeatzea eta irakaskuntza prozesuei buruz hausnartzea izango da, eta bigarrenek testuinguru irekiagoetan mugitu beharko dute eta ikasketa funtzionalagoak eskaini.

Prozesu horretan, ikasleei curriculumaren bitartez oinarrizko gaitasunak garatzen laguntzeko abian jartzen den orientazio didaktikoa erabakigarria izango da. Hortaz, curriculumen gaineko dekretuetan islatu den ikuspegiarekin koherente izaten saiatuz, hezkuntza-praktikara hurbiltzea da gure helburua orain. Horretarako, ondoren jorratuko dugun dokumentuan, curriculum oinarrizko gaitasunak barnean hartuko dituen ikuspegia aintzat hartuta garatzen lagunduko duen esparrua ezartzeko esfortzua egin dugu, eta horretarako irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuaren hainbat alderdi jorratzen saiatu gara.

Hori dela-eta, ezinbestekoa da irakasteko eta ikasteko prozesuari buruz garapen koherentea egiten lagunduko duten zenbait orientabide metodologiko eta didaktiko eskaintzea; orientabide horiek, aldi berean, gaitasunetan oinarrituriko ikuspegia bermatu beharko dute.

Ikasgelako eguneroko jardunean oinarrizko gaitasunen ikuspegia txertatzeko nahiarekin aurkeztu ditugu orientabide tekniko hauek. Orientabideok plastika eta ikus-hezkuntzako ikasgaiari daude lotuta, baita haren metodologiei eta ikuspegi honetarako beharrezko ebaluazio-prozesuei ere.

Orientabideon asmoa irakasleei ikaste-prozesua antolatzeke laguntza ematea da, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko plastika eta ikus-hezkuntzako curriculumean jasotako printzipioak errespetatuta. Beraz, irakasgaiaren helburu orokorrak eta oinarrizko gaitasunak lortzera bideratuta daude.

Orientabideen abiapuntua ikaskuntza aktiboaren printzipioak onartzea da; printzipio horiek irakasteko eta ikasteko prozesua osatzen duten aldagai metodologikoei buruzko ataletan garatuko dira.

2. IRAKASGAIAREN EZAUGARRIAK

Plastikaren eta ikus-hezkuntzaren testuingurua

Plastikak eta ikus-hezkuntzak gaur egun duten tokia zehazteko orduan, ezinbestekoa da azken hamarkadetan izandako aldaketa nabarmenak aintzat hartzea. **Ikaslea erreferentzia estetiko anitzez osaturiko gizartean bizi dela** aintzat hartu behar dugu eta erreferentzia horiek bere sozializazio-prozesuetan zein nortasuna eraikitzekeo prozesuetan daudela, baita munduari buruz dituen ideiak eratzeko prozesuan ere.

Bestalde, aintzat hartu beharra dago plastikaren eta ikus-hezkuntzaren testuinguruan eraldaketa sakonak gertatu direla, hein handi batean informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapena dela-eta, baina baita beste hainbat faktoregatik ere; hala nola, kultura aniztasuna eta kulturen arteko eraginak, eta aisia bizitzeko modua. Azken horren barruan, produktu estetikoak merkatuko faktore garrantzitsu bilakatu dira.

Azkenik, oso gogoan izan behar ditugu artearen praktikan bertan gertatu diren aldaketak, arteen arteko mugak gero eta lausoagoak baitira eta baliabideek, euskarriek, ikuskerek eta planteamenduek garapen esponenziala izan baitute. Horrek beren irakaskuntzaren eta ikasketaren marjina tradizionalak itxuragabetzen ditu.

IKASGELAN HONAKO HAUEI EMAN BEHAR ZAIE ERANTZUNA:

- irakasgaiaren izaera esperimental eta ekoizpenekoari
- beharrezko diren teknika eta materialak erabiltzeari eta haien aniztasunari
- irakasgaiaren hausnarketa-dimentsioaren garapenari
- banakako lanari eta kolektiboari.

Arte-praktiken garapenaren testuinguru horretan, argi geratzen da **goi kultura artistikoak presentzia handia duela, baina ez hori bakarrik, baita kontsumitzen diren objektu eta irudi gehienek bilgarri estetiko gero eta zainduagoa dutela ere.** Gizarteak mota askotako erreferentzia estetikoak jasotzen ditu, haietako batzuk erakunde artistikoek arte gisa definitzen dutenetik edo definitu izan dutenetik kanpo badaude ere.

Bestalde, gorago aipaturiko errealitate teknologiko berriak ulertarazten digu eguneroko bizitzan informazio bisualaren manipulazioak (xede artistikoekin egin ala ez) artean behar diren pentsamendu-gaitasunetatik gero eta hurbilago dauden gaitasunak sortzen dituela eta behar dituela.

Curriculumaren inguruko gogoetak

Hemendik abiatuta, erraz uler daiteke bigarren hezkuntzako curriculumak gizarteak duen alfabetatze estetiko premiarekin koherentea izan behar duela, horrela komunikatzeko eta elkar ulertzeko gai diren pertsonak sortzeko, sentsibilitate eta erregistro-aberastasun nahikoa izango dutenak, gizartean etengabe erabili beharko baitituzte baliabide bisualak, bai web orri bat edo aurkezpen bat sortzeko, bai beren argazkiak ordenagailuan manipulatzeko eta, zergatik ez, beren ideiak eta erantzunak bizi diren munduan ekoizpen artistiko baten bidez adierazteko.

PLASTIKA ETA IKUS-HEZKUNTZAREN AZTERGAIA

- ikusizko arteak eta ondare kultural
tradizionala eta garaikidea
- espezifikoki artistikoa ez den
ikusizko kultura edo mundu bisuala

Irakasgai honen inguruko curriculumari heltzeko garaian, aintzat hartu beharko da, batetik, plastikaren eta ikus-hezkuntzaren ikasketa bera, hau da, ikusizko arteak eta ondare kultural tradizionala eta garaikidea, eta espezifikoki artistikoa ez den kultura edo mundu bisuala. Eta, bestetik, irakasgaiaren oinarritze teorikoaren ondorio gisa, modu orekatuan landu beharko dira pertsonen ekintza artistikoei eta ikusizko kulturari aurre egiteko dituzten bi moduak: produkzioaren dimentsioa (irudien, soinuen eta abarren bidez adieraztea, sortzea, komunikatzea...) eta hausnarketa-dimentsioa edo kritikoa (ikusizko kulturako produktuak ezagutzea, behatzea, aztertzea, interpretatzea, haiek artetzat jotako inguruneari dagozkion ala ez alde batera utzita).

GERTAKARI ARTISTIKOEI ETA IKUSIZKO KULTURARI AURRE EGITEKO MODUAK

- ekoizpenaren dimentsioa (irudien, soinuen eta abarren bitartez adieraztea, sortzea, komunikatzea, eta abar)
- hausnarketa-dimentsioa edo kritikoa (ikusizko kulturako produktuak ezagutzea, behatzea, aztertzea, interpretatzea, haiek artetzat jotzen den inguruneari dagozkion ala ez alde batera utzita)

Irakasgaiaren azterketa xedetzat jo dena aintzat hartuta eta haren lan-planteamenduari jarraiki, ikusizko arteen lengoaiaren berezko baliabideak eta baliabide teknikoak eta prozesualak erabiltzea aurreikusten da. Baliabide horiek ekoizpen eta hausnarketa dimentsioak garatzeko ezinbesteko tresnatzat hartzen dira.

Bigarren hezkuntzako ikasleek ekintza artistikoak beren bizitzetatik eta interesetatik urrunegi egon den arte ideiatik harago ulertzen lagunduko dien hausnarketa helduagoa egiteko gaitasuna dute. Artearen ideia horrek gizartearen askotariko adierazpen estetikoak, haien erabilerak, funtzioak eta esanahi kulturalak lotuko dituen sistema baten barruan kokatzeko modukoa izan behar du, eta aldi berean ikasleen bizipenatarako eta kezka estetikoetarako leku bat gorde behar du.

Ikastetxeak bizipen eta ardura estetiko horiek lekua izango duten guneak eskaini behar ditu, eskolako kulturaren eta ikasleak eskolatik kanpo duen kulturaren artean distortsiorik eta etendurarik ez sortzeko. Hortaz, ezinbestekoa da produktu estetiko sorta zabal batekin lan egitea, ez bakarrik goi kultura artistikoari dagozkionekin, baita eguneroko bizitzan aurki ditzakegunekin ere.

3. IRAKASGAIK OINARRIZKO GAITASUNEN GARAPENARI EGITEN DION EKARPENA

Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.

Irakasgai hau lantzeko garaian metodo zientifiko deiturikoarekin lotutako prozedurak erabiltzea (behaketa, esperimentazioa, aurkikuntza, ondorengo hausnarketa) gaitasunean egindako ekarpenaren seinale da.

Baina, horretaz gain, artea eta ikusizko kulturako produktuak errealitatera eta mundu fisikora hurbiltzeko beste modu bat dira, hura ulertzeko, adierazteko eta begiratzeko beste modu bat, zientziarekiko paraleloa. Irudiak (finkoak eta mugimendua dutenak) deskriptiboak izateak espazio fisikoa eta giza jarduerarena hobeto ezagutzeko modua ematen du.

Ekoizpen artistikoetan bildutako historia dokumentu oso baliotsua da pertsonak bizi diren ingurunearekin nola erlazionatu diren eta hari buruzko diskurtso bisualak nola egin dituzten eta egiten dituzten ulertzeko.

Irudi zientifikoak (astronomiakoak, prozesu kimikoenak) irudi teknologikoak izan ohi dira, eta halaxe dira medikuntzak giza gorputzari buruz eskaintzen dituen ikuspegiak ere. Horrek guztiak une honetako ikus-entzunezko kultura osatzen du. Munduaz – eraikuntza mental gisa– dugun irudia teknologikoki prozesaturiko hainbat eta hainbat iruditatik eratorritakoa da. Teknologiak ikusgarri egiten du begiarentzat urrunegia, iheskorregia, motelegia edo txikiegia den oro. Irakasgai honek kultura zientifikoan eta teknologikoan ezinbestekoak diren ikuspegi tekniko horiek ulertzen eta baloratzen laguntzen du.

Gaur egun, artea, ingurune fisikoari eta naturalari buruzko arazoek (ekologia, iraunkortasuna, ingurumenaren degradazioa, eta abar) inguruko hausnarketa eta kritika ahalbidetzen duen espazio pribilegiatua ere bada. Eta alderdi horrekin lotuta eta irakasgai honen barruan bitarteko eta material ugari erabiltzen dela aintzat hartuta, baliabide naturalak modu arduratsuan erabiliko ditugula, ingurunea zainduko dugula, produktuak eta materialak modu arduratsuan kontsumituko ditugula eta abar bermatuko duten erabakiak hartzea behar-beharrezkoa da, pertsonen bizi-kalitateko ezinbestekoak baitira aipatutako guztiak.

Amaitzeko, irakasgai honetako arlo jakin batzuk lantzeak, esaterako diseinu grafikoa eta industriala, giza gorputzaren proportzioak ezagutzera behartzen gaitu, baita hark irudiekin eta objektuekin elkarrengaiterakoan erabiltzen dituen mekanismoak eta dituen mugak ezagutzera ere. Gainera, bizitza fisiko eta mental osasungarria izateko ahalmena argudio arrazionalen bitartez azaltzea ahalbidetzen du.

Lan-proposamenak:

- Diseinu industrialeko edo grafikoko hainbat produkturi buruzko hausnarketa bultzatzea, esleitu zaien erabileraren arabera giza gorputzera zenbateraino egokitu diren ikusteko (irakurgarritasuna, ergonomia, antropometria), baita beren osagaiek eskaintzen dituzten birziklatze-aukerei buruzkoa ere.
- Arte-lanetan hainbat material naturalen eta artifizialen erabilerari buruzko hausnarketa bultzatzea, batzuk ala besteak erabiltzeko egokitasunari buruz ondorioak ateratzeko.
- Ingurune fisiko edo naturaleko hainbat arazori erantzunak ematea bultzatzea, irudien bitartez edo hainbat iruditari oinarrituriko eztabaiden bitartez.
- Gizakiaren begiarentzat atzemangarriak ez diren prozesuak (oso urrunekoak, iheskorak, motelak, eskuratzeko zailak edo txikiegiak) erakusten dituzten argazkiak biltzea eta antolatzea sustatzea, betiere alde aurretik ezarritako irizpideei jarraiki.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Ikasten ikasteko, lehenik eta behin, ikasketa-prozesuari ekiteko gaitasunak eduki behar dira, eta gero eta modu eraginkorragoan eta autonomoagoan ikasten jarraitzeko gai izan behar da, norberaren helburuei eta beharrei jarraiki.

Plastika eta ikus-hezkuntzako irakasgaiak helburu hori lortzen lagun dezake, norberaren gaitasunez eta jakintzez jabetzen, haiek kudeatzen eta kontrolatzen lagunduta, ikasleek erabakiak hartu, baliabide egokiak bilatu, eman beharreko urratsei buruz hausnartu, erabaki horiek hartzera eraman dituzten arazoak azaldu eta arazoitu eta egindako ikasketen balantzea egiteko behar dituzten proiektuak landuz. Proiektu artistikoak komunikazio-konponbide bat lortzea dakar eta, hortaz, ikerketa erreflexiboarekin bat egiten du. Estrategia metodologiko horrek zalantzan jartzen du artea ekoizpen espontaneo izatea, beste lan egiteko modu batzuetatik bereizten duen «inspirazio hutsa» izatea eta, hala ere, beste jakintza-eremu batzuekin ikasketa-esperientziak trukatzeko ahalbidetzen dio. Horrez gain, baliabide egokiak bilatzeko premiari, gainerakoengandik ikasteko premiari eta aurrera egiteko kooperatzeko premiari buruz jabetzen laguntzen du.

Plastika eta ikus-hezkuntza irakasgaiaren barruan egin beharreko lan-planteamenduak sormen-printzipioei estu loturik egongo dira. Ikasketa kreatiboak baztertu egiten du alde aurretik emandako ereduak errepikatzea, eta ikasleak esperimentazioaren arriskuaren aurrean jartzen ditu. Irudietan oinarrituriko ekoizpenean ezin da jakintzat eman erantzun zuzen bakarra egongo denik. Ikasleak hainbat aukera probatuko ditu, bere akatsetatik ikasiko du, arazoa konpontzeko aukera emango dion bidea asmatuko du, arazoa barne-koherentziatik abiatuta konponduko du eta abar.

Lan-proposamenak:

- Teknikeri, konposizioari edo gai konkreturen bati buruzko (egileren bat, produktu bat, eta abar) azterketa- eta esperimentazio-proposamenak planteatzea eta proposamen horietan sormen-prozesu indibiduala edo taldekoa jasoko duen albuma egitea, hausnarketa eta ebaluazioa errazteko.
- Lan-proiektu bat modu indibidualean edo kolektiboan planifikatzea eskatzen duten jarduerak proposatzea, betiere xede jakin batekin, fase bakoitza egituratuta eta haiei ondo egokituta.
- Informazioa aztertzea, kontrastatzea, bilatzea eta abar eskatzen duten jarduerak bultzatzea, adibidez, arte moduei eta haiek aplikatzeko tokiei buruz.
- Informatika-baliabideen bidezko esperimentazioa bultzatzea irudi eta erantzun artistikoetarako erantzun eta konponbide berriak bilatzerakoan eta sortzerakoan.
- Proiektu kolektiboak planteatzea, adibidez, argazkien bidez eta irudiak hartzeko prozesuen bidez. Prozesu horietan bat egingo dute ikerketak eta analisi kritikoak, informazioa bilatzeko eta kudeatzeko gaitasunak, taldean lan egitekoak, azterketa eta sintesi gaitasunak, antolatzeak eta planifikatzeak, ahoz eta idatziz komunikatzekoak eta abar.

Matematikarako gaitasuna.

Proiektu artistiko askok arazo teknikoak konpontzea behar izaten dute eta horretarako matematikak berezkoak dituen pentsamendu tresnak eta baliabideak erabili behar izaten dira. Espazioa irudikatzeko zenbait sistema eraikitze beharrak, mota guztietako objektuak diseinatzerakoan kontzeptu eta baliabide geometrikoetara jotzeko beharrak, formen, proportzionaltasunetik eratorritako konposizio-baliabideen, urrezko sekzioen, simetrien eta abarren arteko harremanak ulertzeko neurriak, proportzioak eta posizioak erabiltzeko beharrak zubi bat eraikitzen du arlo baten eta bestaren artean eta ezinbestekoa da hori gelan lantzea.

Irudiekin egin beharreko lanaren barruan, irudi finkoak ala mugimenduzkoak izan, hainbat printzipio matematiko biltzen dira; esaterako, proportzioen eta erritmoen erabilera, formatuen arteko harremanak, baita denboraren neurria eta ordena-harremana ere soinuarekin edo mugimenduan dauden irudiekin lan egitean, edo irudi finkoak dituzten narrazioekin lan egitean. Argazki kameraren elementuak manipulatzeko prozesuetan ere aintzat hartu behar dira, esaterako, honako alderdi hauek: sentsibilitate fotografikoko eskala, obturadorearen abiadura-sekuentzia eta diafragmaren irekidura, diafragmaren balioen segida... Elementu horiek guztiek matematikarekiko hainbat erlazio agerian uzten dituzte.

Amaierako konponbideetara iristeko ikerketa eta garapen matematikoko prozesuetan behar diren informazioak, datuak eta argudioak argi eta zehatz adierazteko trebeziaren atzean, alde zuzeneko analisi eta azterketa kreatiboa dago, behar bezala antolatuta eta logikari jarraiki azalduta; azterketa horretan, intuizioek, kalkuluek, diagramek, adibideek eta abarrek konponbideak irudikatzera eta aplikatzeko metodoak haztatzen eramango gaituzte. Lan-prozesuak bideratzeko modu hori prozesu artistikoetan erabiltzen denaren oso antzekoa da.

Bestalde, ezin dugu ahaztu artearen historia pentsamendu matematikoarekiko topaketez beterik dagoela eta alderantziz, eta topaketa horiek agerian uzten dutela gizakiak mundua ulertzeko baliabide sorta zabalarekin bizitzeko duen beharra, logikaren eta intuizioaren arteko banaketa topikotik harago, pentsamendu konbergente eta dibergentetik, arrazionaletik eta emotibotik harago. Ereku komun horiek ikasleekin lantzea garrantzitsua da.

Lan-proposamenak:

- Irudietan konposizioa modu sistematikoan lantzea bultzatzea, espazioa antolatze arazoak aztertuz eta konponduz, bai errepresentazio-espazioa, bai irudikaturikoa.
- Artelanetan, irudietan eta ekoizpen plastikoetan historian zehar eta hainbat faktoreekin lotuta eginiko espazioaren antolamendutik eta haren irudikapenetik eratorritako baliabideak identifikatzea sustatzea.
- Manifestazio plastiko eta bisualak sistematikoki aztertzea, formaren egituraren, espazio hutsen arazoetan, proportzio-erlazioetan, kokapenean eta abar parte hartzen duten baliabideak aintzat hartuta (urrezko sekzioa, segidak, eta abar).
- Neurri, proportzio, posizio eta bestelako arazoak dituzten espazio-antolakuntzen diseinua eta konfigurazioa bultzatzea (seriazioak, errepikapenak, birak, translazioak, eskalak).

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Egungo arte-ekoizpenaren eta pertsonak inguratzen dituzten produktu estetikoaren zati oso garrantzitsu bat kolore- eta forma-erregistroz osatuta egoteaz gain, haietan erabat integraturiko ahozko lengoaiak ere osatuta dago. Arte-produktuen bitartez ezagutzeak, ulertzeak, sortzeak edo komunikatzeak berekin dakar lengoaiaren funtzionamenduari eta haren erabilera-arauei buruzko jakintza erreflexiboan oinarrituta lan egitea, eta horrek, lengoaiaren gizarte-konbentzioez, haren balioez eta kultur alderdiez jabetzea dakar, baita testuinguruaren eta komunikazio-intentzioaren arabera duen aldakortasunaz ere.

Ikusizko kulturako prozesuak ulertzeak, aztertzeak eta manipulatzeko edo sortzeko berekin dakar hitzekin lan egitea. Produktu estetiko horietan idatzizko testuak sartzeak esanahi denotatibotik harago doan erabilerak dituztela esan nahi du, alegia, poesiaren, erretorikaren eta sinbolismoaren munduan sartzen direnak. Horrela, lengoaiaren bitartez pentsamendu emozionala, inteligentzia kualitatiboa eta sentsibilitatea lantzea eta garatzea ahalbidetzen dute. Diseinuaren arloan, esaterako, proiektu baten abiapuntua ez dela bisuala izaten egiazta daiteke; helburua kode linguistikoak kode grafikoetara igarotzea izaten da, hitzeko lengoaiatik ikusizko lengoaiara. Ikus-entzunezko kulturaren produktuek ere beren baitan jasotzen dute hitzeko dimentsioa, bisuala, entzutezkoa, denborazkoa eta abar, eta ikus-entzunezko dokumentuak eta testua eta irudia integratuta dituztenak ulertzeak zentzuaren eraikuntzan sakontzea esan nahi du, baita esanahiaren dimentsioan sartzea ere, hainbat lengoia uztartuta.

Irakasgai honen lanaren barruan, garrantzi handia du aipatu bezala produktu artistiko-estetikoetan giza sinbolizazio hainbat lengoia edo tresna integratuta egoteak eta elkarrekin bizitzeak, baina garrantzia du, halaber, haien arteko zirkulazio-aukerak eta elkarrekiko erreferentziak eta babesak; eta, horrez gain, haien espezifikotasunen arteko kontrasteak ezarritako elkarrizketa indartzen du eta hainbat komunikazio-egoeratan kode eta trebezia linguistiko eta ez-linguistikoak eta komunikazio-trukearen berezko arauak aktiboki eta eraginkortasunez erabiltzea dakar.

Bestetik, hizkuntza-komunikaziorako gaitasunari asko laguntzen diote gelan sortzen diren komunikazio-truke aberatsek, ikasgelak gobernatzeko arauak, egiten dituzten prozesuen azalpenak edota irakasgaiaren beraren hiztegi espezifikoak. Era berean, lan-prozedurak transkribatzean, lortutako ebazpenak argudiatzean eta artelanaren balorazioa egiterakoan ere garatzen da gaitasun hori.

Lan-proposamenak:

- Hitzeko lengoaiak –Ryan Trecartin, Bil Viola, Bruce Nauman, eta abar– eta/edo idatzizkoak –Bruce Nauman, Robert Indiana, Jenny Holzer, Barbara Kruger, eta abar– parte hartzen duen arte eta ikusizko kulturako adierazpenak aztertzea eta ulertzea bultzatzea.
- Ahozko lengoaiak edo idatzizkoak parte hartuko duten lan plastikoak eta bisualak berridaztea, testuingurutik ateratzea, aldatzea eta sortzea bultzatzea –lan bisual txikiak, kartelak, hainbat bitarteko eta testuingurutarako publizitatea, eta abar–.
- Txantiloiak, lanerako eskemak eta abar proposatzea; gelan, bakarka edo taldeka egiten diren ekoizpen artistikoak egiteko prozesua idatziz eta grafikoki biltzea ahalbidetuko duten elementuak.
- Eginiko, aztertutako edo proposaturiko lanei buruzko eztabaidak ahalbidetzea.

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.

Teknologien mende dagoen gure gizarte honetan, hainbat lengoaiaren arteko erlazioak (ahozkoa, testuala, soinuduna, grafikoa, bisuala, eta abar) teknologikoki baldintzatzen duen ikuspegi komunikatiboa da nagusi.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek baliatzen dituzten euskarri berriak, hein oso handi batean, irudiaren eta soinuaren gainean artikulatzen dira, eta, gainera, haiek erabiltzen dituztenengan esperientzia estetikoak sortzen saiatzen dira. Txosten bat edo aurkezpen bat egiteak, Interneten informazioa bilatzeak, argazki-oroimenak ordenagailuan gordetzeak, eta mezuak bidali eta jasotzeak irudiak manipulatzeko dakar, ia halabeharrez. Egile askoren ustez, irudiak eta informazio bisuala manipulatzeko eta ulertzeko gaitasun horiek alfabetatze berri eta saihestezina dakarte, eta gaitasun hori eskuratzeko pisua ia erabat irakasgai honen gainean dago, artean behar diren gaitasunetatik inoiz baino hurbilago dauden pentsamendu-gaitasunak sortzen dituelako eta behar dituelako.

Lengoaia teknologiko digitala ohiko bizitzan balio estetikoa izango duten mezuak ekoizteko erabili ahal izatea da helburua; baita informazio bisualarekin loturiko pentsamendu-prozesuak teknologiaren erabilera horiek iragaztea ere. Bestalde, ekoizpen artistikoa bera gaitasun artistikoa eta digitala ezinbestean loturik dauden euskarri teknologikoan oinarritzen da gero eta gehiago; net.art izenekoak litzateke horren muturreko adibidea.

Era berean, teknologia artearekin eta ikusizko arteekin loturiko prozesuak erakusteko tresna gisa erabil daiteke, baita ikasleak besteen ekoizpen artistikoen sormenera hurbiltzeko ere.

Eta, azkenik, kontuan hartu behar dugu gaitasun honek ohiko iturrietatik (liburuak, hiztegiak, gizarte-hedabideak, eta abar), multimedia-aplikazioetatik eta IKTetatik (bilatzaileak, bilatze-ibilbide garrantzitsuak, eta abar) datorren informazioa aukeratzea, erregistratzea, tratatzea edo aztertzea dakarrela. Informazioa jakintza bihurtzen jakitea da helburua; horretarako, arrazoitzeko trebetasuna behar da, informazioa antolatzeke, erlazionatzeko, aztertzeke eta laburtzeke, baita hainbat konplexutasun mailatako inferentziak eta dedukzioak egiteke ere. Era berean, eskuratutako informazioa eta jakintzak komunikatzea esan nahi du; hainbat lengoaia eta teknika espezifiko bilduko dituzten adierazpen-baliabideak erabilita komunikatzea, hain zuzen.

Lan-proposamenak:

- Gai jakin bati buruzko (mugimendu artistiko bat, artista bat, eta abar) informazioa bilatzea, antolatzea, kontrastatzea, aukeratzea eta abar bultzatzea.
- Aurkezpenak, konposizioak eta abar egitea bultzatzea, horretarako tresna digitalak erabilita. Hau da, irudi digitalen oinarritzko tratamendua, testua integratzea, edizioa eta muntaiak antolatzea, eta abar bultzatzea.
- Hainbat jatorritako lanak eta irudiak sortzerakoan edo manipulatzekoan baliabide teknikoak erabiltzeko aukera aztertzea eta ikertzea bultzatzea.
- Proiektuak sortzea, antolatzea eta garatzea sustatzea, ondoren haiek ingurune informatiko batean ebazteari begira.
- Baliabide tradizionalen eta bitarteko digitalen artean gertatzen diren elkarreragin anitzen arteko ulermena bultzatzea, eta haiek marrazketa- eta diseinu-prozesuak aberasteko faktore gisa erabiltzea.

- Adierazpen grafikoarekin loturiko aplikazio informatikoen zenbait erabilera, baliabide eta konbentzio identifikatzea eta kontrolatzea bultzatzea, eta haiek norberaren premiei erantzuteko erabiltzea.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.

Gertaera artistikoak haiek sortu dituzten gizarteetan ainguratuta egon izan dira, eta, hortaz, ezin dira jatorrizko kulturatik edo sortu diren testuinguruetatik kanpo ulertu: balioak, gako ekonomikoak, ideologikoak, teknikoak, erlijiosoak, zientifikoak... Gelan lan egitean, artea eta irudiak ikusteko eta interpretatzeko unean testuinguru sozialen, kulturalen eta esperientzia pertsonalen garrantzia aintzat hartzeak munduko errealitate historikoa, haren bilakaera, lorpenak, arazoak eta abar ulertzen lagunduko du.

Ezin dugu ahaztu, askotan, artea iraganeko kulturetara hurbiltzeko testigantzarik garrantzitsuenetakoa izan dela. Argazkiak ere norberaren esperientziak beste batzuenekin partekatzea eta trukatzea ahalbidetzen duten bitartekoak dira; horrez gain, beste era batera ezagutuko ez genituzkeen egoerak eta lekuak ezagutzeko aukera ematen digute, eta gure esperientziaren bitartez nekez izango genituzkeen sentsazioak eta emozioak eskaintzen dizkigute. Baina arteak eta ikusizko kulturako produktuak haiek sortu dituzten gizarteetako islak izateaz gain, nortasun indibidualak eta kolektiboak osatzen laguntzen dute. Irakasgai honek gertakizun artistikoei ikuspegi horretatik heltzeko lana egin behar du, ez bakarrik balio formaletatik eta estetikoetatik heltzekoa; iraganeko eta egungo gizarte-kezkei, gizabidezko balioekin loturiko gaiei, ingurumen-iraunkortasunari, kultura arteko bizikidetzari eta solidaritateari buruzko hausnarketetan sartzeko aukera eman behar du.

Artea, eraman behar duen eta indibidualtasunarekin gehiegi lotzen duen herentzia gorabehera, gizarte ekintza bat da, maila guztietan. Ekoizpena lanerako gune kolektiboa ere izan daiteke, gune horretan errespetu, bizikidetzatza, tolerantzia eta elkartasun balioak lantzeko, eta hainbat testuingurutan komunikatzen ikasteko, norberaren ideiak adierazteko eta besteenak entzuteko, besteen lekuan jartzeko gai izateko eta haien ikuspegia ulertzeko, nahiz eta gurearen desberdina izan, eta ondorioz, erabakiak hartzeko, interes indibidualak eta taldearenak aintzat hartuta. Irakasgai honetan, halaber, beste hainbat alderdi landuko ditugu; esaterako, errespetua, besteen ekoizpenak onartzea, hainbat kulturak eta pertsonak artearen bitartez munduari erantzuteko eta hura ulertzeko dituzten moduak baloratzea.

Lan-proposamenak:

- Hiru dimentsioko objektuak diseinatzeko eta ebazteko proposamenak planteatzea, horretarako, haien gizarte-erabilgarritasuna, biltzeko ahalmena, birziklatzekoa, garapen iraunkorra eta tanketako alderdiei buruz hausnartuta.
- Ikusizko kulturaren produktuak aztertzea bultzatzea, betiere haiek ingurune artifizialaren osagai eta gizartearen isla gisa ulertzea bultzatuz.
- Batera lan egiteko proposamenak bultzatzea eta lan horiek gauzatzeko guztien artean adosturiko planak osatzea, zereginak modu ekitatiboan banatzea eta taldearen lana eta erritmoa errespetatzea.
- Artelanetan eta irudietan haien erabilerak eta funtzioak baldintzatzen dituzten faktore sozialak eta kulturalak aztertzea bultzatzea.

- Laneko prozesu batean zehar erabiltzen diren materialak eta sortzen diren zalantzak, arazoak eta eztabaidak biltzea bultzatzea, norberaren jakintza nola eraikitzen den jabetzeko.
- Objektu artistikoen eta irudien behaketan oinarrituta hainbat jatorritako eta kulturatako produktu estetikoek elkarreraginak eta identifikazioak bilatuko dituzten proposamenak planteatzea.

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.

Gaitasun hori, hein handi batean, gertaera artistikoei gizakiei ekarritako errealitate-hurbilketa bereziarekin zerikusia duten ezaugarrien bidez definitzen da. Era berean, pentsamenduaren prozesuekin eta munduari ematen zaion erantzun mota horren jarrera inplizituarekin lotuta dago, bai eta martxan jartzeko beharrezkoa den baliabide material eta teknikoak erabiltzeko trebetasunarekin ere. Modu berean, gizarteak arte-praktiketan ibilitako bideen ezagutzari lotzen zaio, baita gizarteak eman izan dizkion eta ematen dizkion erabilerei eta funtzioei ere. Hortaz, adieraztea eta komunikatzea, zein artearen eta kulturaren munduko hainbat errealitate eta ekoizpen ulertzea eta haiekin aberastea ahalbidetzen duen gaitasuna da.

Plastika eta ikus-hezkuntzako irakasgaiaren oinarria deskribatu den errealitate horren estetika arloko bertsio, begirada eta ulermenak eraikitzea da. Arlo estetiko horretan, emozioak, sentsazioak, alderdi kualitatiboak, testuinguruak, poesia, metaforak, balio formalak (koloreak, formak, soinuak) eta abar lehentasunezko lan-materiala dira.

Bigarren hezkuntzan, ikasleak aurreko etapan lortutako jakintzak eta trebeziak zabaltzeko moduan daude eta hausnarketarako eta proiektuak egiteko gaitasun handiagoa dute. Hausnarketak eta proiektugintzak irakasgaietan bertan lantzen diren sormen artistikoko hainbat prozesu behar ditu –marrazketa, pintura, argazkilaritza eta abar–.

Antzinako kulturetatik gaur eguneko kulturetara, sormen artistikoko prozesuak adierazpen- eta komunikazio-premiei emandako erantzunetan presente egon izan dira, eta adierazpen-arazoak aztertzeke, ulertzeke eta konpontzeke eta ebazpen bisualak emateko balio izan dute, irudi edo irudikapen grafiko batean, komunikazio, narrazio edo adierazpen asmoak islatuta.

Egungo gizarteak, inoiz baino gehiago, zuzenean emozioetara jotzen duten produktu estetikoak iragazita dago; haien euskarriak erantzun afektiboak dira eta esperientzia sentsitiboak sortzen dituzte etengabe. Bigarren Hezkuntzan, bereziki, ikasleek inguratzen dituzten produktu estetiko horien bitartez sozializatzen dute eta eraikitzen dute beren nortasuna: moda, zinema, musika, gorputzeko estetika, eta abarren bitartez. Horregatik, ezin ditugu ahaztu arteak eta ekoizpen artistikoei gizartearen esku hartzeke eta hura eraldatzeko dituzten aukerak, alde batetik, eta egungo kultura ulertzeke lan egiteko premia, bestetik.

Lan-proposamenak:

- Irudi fotografikoez jabetzea eta haiek berregitea sustatzea, hainbat proposamen kreatibori eta hainbat arazo artistikori erantzuteko.

- Artearen eta kulturaren arteko harremanak eztaba daezintzat eta estankotzat ulertuko ez dituzten planteamenduak bilatzea, haien artean gertatzen diren loturak eta norabideak irudikatzeke eta adierazteke proposamenak bilatuz.
- Hainbat unetan eta kulturatan erabiltzen dituzten edo erabili izan dituzten (marrazketa, pintura, eskultura, eta abar) arte-sormenerako prozesuak aztertzea eta haiekin esperimintatzea bultzatzea.
- Irudien eta irudi horiekin loturiko dokumentuen irakurketa gogoetatsuak proposatzea, haietan ezaugarri plastikoak, kontzeptualak, kulturalak eta abar antzemateke asmoz.
- Gizarteko arazoei erantzuteke edo beste irudi batzuekiko elkarrizketa gisa irudiak eta konponbide artistikoak sortzeke bakarkako proiektuak edo taldekoak bultzatzea.
- Hainbat espaziori eta denborari buruzko irudi eta objektu artistikoak aztertzea bultzatzea, haiek sortzeke prozesuak ulertzeke, hainbat faktorek parte hartzen duten produktu konplexuak diren aldetik.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Norbera autonomo eta ekintzaile izateak zera esan nahi du, banakako edo taldeko ekintzak eta proiektuak imajinatzeke, ekiteke, garatzeke eta ebaluatzeke gai izatea, sormenez, konfiantzaz, erantzukizunez eta zentzu kritikoz jokotuta.

Esan beharra dago irakasgai honetan hasierako miaketatik amaierako produktura arteko prozesuak alde zurreko plangintza behar duela eta emaitza originalak eta ez-estereotipatuak lortzeke esfortzua egitea eskatzen duela. Jakina da, halaber, irakasgaietan lan-prozesuek baliabideak aukeratzea eskatzen dutela eta horretarako kontuan izan behar dela produktuarekin adierazi nahi dena eta prozesuaren fase bakoitzean egin dena berrikusi behar dela, behar izanez gero hobekuntzak egiteke.

Bestalde, sormen-proiektuen planteamenduak autonomiaz jardutea eskatzen du, baita ekimenak martxan jartzea eta hainbat aukera eta konponbide aztertzea ere. Proiektuek originaltasunari eta forma berritzaileen bilaketari laguntzen diote, eta horrez gain, aukerak eta mugak antzemateke, memorizatzeke, irudikatzeke eta aztertzeke, eta erabakiak sortu, hartu eta proposamenak planteatzeke norberaren berezko gaitasunari laguntzen diote.

Arte ekoizpenekin lan egiteak, erantzun irekiak emateke modu gisa, hainbat aukera pertsonal eta kolektibo onartzen ditu, autoestimua indartzen laguntzen du, baita gure nortasuna indartzen ere. Gainera, emozioekin eta afektibitatearekin lan egiten du eta erantzun horiek kudeatzen laguntzen du. Halaber, gure sentimenduetan eta besteen sentimenduetan sakontzeke aukera ematen digu, haiek berrirakurri eta berregituratzeke, bakoitzaren esperientziara egokituz.

Esperimintazioak, sorkuntza-metodo gisa, emaitza berritzaileak eta originalak ematen ditu, ikasleak aurrea hartzeke eta beren kabuz ikertzeke gai diren heinean, aurrean dituzten aukera guztiak baliatuz eta kasu bakoitzean erantzun egokiena hautatuz. Bestalde, esperimintazio horrek eta soluzio berrien edo desberdinen bilaketak ideiak transmititzeke gaitasuna bultzatzen du, horretarako hainbat bitarteko erabilia; hala nola, marrazkiak, diagramak, maketak, edo ahozko eta idatzizko hitzak.

Lan-proposamenak:

- Irudien eta dokumentu bisualen azterketa bultzatzea, ikaslea iritzia emateko eta berezko erantzun bat osatzeko beharrezkin aurrez aurre jartzeko bitarteko gisa.
- Ikasleak ekoizle gisa eta mundua interpretatzen duen, erabakiak hartzen dituen eta bere irizpideei jarraiki konponbideak ematen dituen subjektu autonomo gisa bere buruari aurre egitera behartuko duten irudiak ekoiztea bultzatzea.
- Hainbat prozesutan modu autonomoan lan egin dezaten jarduera esperimentalak planteatzea. Adibidez, argazki-kamera erabiltzea eskatzen duten jarduerak, non kameraren baliabideen manipulazioa, esku-hartzea edo argazkian jasoko den espazioaren sorkuntza, argazkiaren alterazioa eta abar bakarka landu beharko dituzten.
- Talde-lana bultzatzea, horrela lan egiteak autoestimua eta nortasuna indartzeko aukera ematen baitu, emozioak lantzen baititu eta emandako eginkizunean erantzukizunez jokatzeko ahalbidetzen baitu, norberaren ideiak edo esperientziak emateko aukera galdu gabe.
- Arteak berezko dituen hainbat teknikarekin, baliabiderek eta prozesurekin lan egitea eskatzen duten proiektuak bultzatzea, lan horrek autonomiaz jokatzeko, ikertzen eta lehenengo emaitzekin ez konformatzen lagunduko baitigu, eta hainbat aukera eta soluzio aztertzerako eramango baikaitu.

4. CURRICULUMENKO ELEMENTUEN ETA OINARRIZKO GAITASUNEN ARTEKO HARREMANA

Curriculum bat osatzen duten atalak ez dira elkarrengandik bereizitako unitateak; elkarren artean lotura duten elementuak dira eta irakasgaiaren curriculumari batasuna eta esanahia ematen diote.

Gaur egun indarrean dagoen curriculuma hezkuntzarako oinarrizkoak diren zortzi gaitasun garatzeko premiatik abiatu da. Premisa horretan oinarrituta, curriculum osoko ezinbesteko atalak, helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak elkarrekin lotuta garatuko dira, gaitasun horiei erantzuteko.

Jarraian aurkituko duzun taulan, **oinarrizko gaitasunen eta plastika eta ikus-hezkuntza irakasgaiko helburuen arteko harremana** agertzen da:

Oinarrizko gaitasunak:

1. Zientzia, teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna.
2. Ikasten ikasteko gaitasuna.
3. Matematikarako gaitasuna.
4. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
5. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
6. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
7. Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasuna.
8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Korrespondentzia maila handiagoa
 Korrespondentzia maila txikiagoa

	1	2	3	4	5	6	7	8
- Produktu estetikoek gizabanakoen eta gizartearen bizitzetan bete duten funtzioa eta izan duten garrantzia ulertzea, korrante artistikoen eta moden eta gustuen bilakaeraz eta aberastasunaz jabetuta, munduari eta pertsoneri buruzko balioak eta ikuskerak osatzerakoan betetzen duten rola ulertzeko.								
- Ekintza artistikoak herrien eta kulturen ondarearen eta nortasunaren zati gisa ulertzea, haien adierazpenekiko interesa erakutsita, haiek zaintzen eta berritzen laguntzeko eta trukeak, kulturen arteko elkarriketak eta partekaturiko esperientzia artistikoek aberastu egiten dutela jabetuta.								
- Produktu artistiko-estetikoak sortzea beren emozioak eta sentimenduak, bizipenak eta ideiak adierazteko, baita espazioak, objektuak eta ingurune naturaleko eta kultureko elementuak adierazteko ere, beren komunikazio, hausnarketa, kritika eta autokonfiantza gaitasunari lagunduta.								

<p>- Lengoia artistikoen teknika, baliabide eta konbentzio nagusiak ezagutzea eta menderatzea, teknologiek eskaintzen dituzten aukerak bereziki aintzat hartuta, beren sormenetan erabiltzeko eta ikusizko kulturako lanetan eta manifestazioetan identifikatzeko eta baloratzeko.</p>								
<p>- Pentsamendu-trebeziak baliatzea: ikusizko baliabideak aztertzea, asmatzea, bilatzea eta kreatiboki manipulatzeko, ikuspegi estetikoak ideiak berregiteko, inguruko objektuak eraldatzeko, hainbat soluzio planteatzeko eta egoerak problematizatzeko.</p>								
<p>- Diseinuari, euskarri bisuala duten informazio eta komunikazio bitartekoei edo objektuen eta formen adierazpen teknikoko sistemari lotutako gure kulturako ekoizpen artistiko-estetikoko espazioak eta inguruneak ezagutzea; haien kode espezifikoetara hurbiltzea, kritikoki balioesteko eta adierazpen eta komunikazio baliabide gisa erabiltzeko.</p>								
<p>- Lengoia plastikoak eta bisualak beste lengoia eta jakintza-arloekin duten harremana ezagutzea, eta ekoizpen artistiko konplexuak proiektatzeko eta garatzeko erabiltzea.</p>								
<p>- Norberarenarengandik eta inguruan gailentzen diren moduetatik desberdinak diren adierazpen estetikoak beste modu batzuk errespetatzea eta balioestea, estereotipoak eta konbentzionalismoak gainditzeko, eta gure erantzunak egiterakoan erregistroak handitzeko, malgutasuna, elkartasuna, interesa eta tolerantzia landuta.</p>								
<p>- Modu indibidualean edo kolektiboan proiektu artistiko bat planifikatzea eta hura egiteko prozesuari buruz hausnartzea, lortu nahi denaren intentzioak zein faseak berrikusteko eta emaitzen ebaluazio kritikoa egiteak duen garrantziaz jabetzeko, partekaturiko lanari erantzukizunez, tolerantziaz eta besteen iritziekiko errespetuz heltzeko.</p>								

Eta hurrengo taulan, **ebaluazio-irizpide baten** (dagozkion itemekin) **eta erreferentzia egiten dion helburuaren eta helburu hori garatzeko bidean lantzen diren oinarrizko gaitasunen arteko harremana** islatu dugu.

Ebaluatzeko irizpideak	Helburua	Oinarrizko gaitasunak
4. IKASTURTEA		
<p>Hainbat une historikotan eta kulturatan irudiak eta ekoizpen artistikoak egiteko moduetan dauden desberdintasunak eta antzekotasunak konparatzea, argudioak erabilia.</p>		
<p>Hainbat une historikotan irudiak nola erabili diren eta zer esanahi izan duten arrazoiekin argudiatzen du.</p>		
<p>Irudien irudikapenaren eta une edo talde ezberdinei dagozkien lan artistikoen alderdiak antzematen ditu.</p>		
<p>Eztabaidetan parte hartzeko eta moden, gustuen eta joera estetikoaren aldaketan oinarrian dauden arrazoiak ezagutzeko interesa du.</p>		
<p>Mundua ulertzeko modu desberdinekin edo gizarreak ingurune naturalari, sozialari edo pertsonari buruz egiten dituen diskurtsoekin edo ulermenekin loturiko ingurune hurbileko artelanak edo irudiak kritikoki aztertzea.</p>		
<p>Hainbat une historikotako edo kulturatako lanetan ideia bat (paisaia bat, giza gorputza, haurtzarora, eta abar) ulertzeko modu desberdinen irudikapena antzematen du.</p>		
<p>Testuinguru hurbileko produktu estetikoetan (publizitatea, aldizkariak, telesailak, zinema, moda, eta abar) gai konkretuak jorratzeko modua kritikoki aztertzen du.</p>		
<p>Artista batek bere lanean erakusten duen asmoari edo ikuspuntuari buruzko informazioa bilatzen du eta modu arrazoituan antolatzen du.</p>		

Proiektu artistiko kolektiboak egiten eta garatzen ditu eta gai komun bat jorrazeko hainbat modu lantzen ditu, bakoitzaren planteamenduak arrazoituta.		
Bere nortasunaren alderdiak erakusten dituzten lanak egiten ditu.		

5. ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

5.1 IRAKASGAIAREN BEREZKO METODOLOGIA

Oinarrizko gaitasunen garapena ez dago irakasgai jakin batekin lotuta, jakintzaren arlo guztietatik eskuratzen dira gaitasunok eta, horregatik, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari heltzean funtsezko erreferentzia dira.

Gaitasun kontzeptuak berak ematen digu haiek garatzeko bide egokienari buruz hausnartzeko gakoa. Gaitasun bat lantzeak bizitzarako zerbait ikastea esan nahi du, eskolan aurreikusi ez diren egoerei irtenbidea bilatzeko, baita egoera bat konpontzeko erabilitako ezagutzak beste egoera edo arazo batzuek konpontzeko transferitzeko beharrezko estrategiak erabiltzea ere. Hortaz, nahiko argi dago gaitasunak garatzeko ikasketa aktiboa behar dela, ikasleak izaten, egiten eta jakintza aplikatzen jakin dezaten prestatzeko.

Ikasketa aktiboak ez du esan nahi metodologia bakarra erabiliko dugunik, komenigarria da ikasgelan hainbat jardun mota erabiltzea eta garatzea. Ikasketa aktiboaren barruan, honako **printzipio eta estrategia metodologikoak** aurki ditzakegu:

- ikasgelan giro atsegina sortzea,
- hainbat informazio-iturri erabiltzea sustatzea,
- parte-hartze estrategiak sortzea,
- espazioa eta denbora hainbat modutan antolatzea,
- komunikazioa bultzatzea...

Plastika eta ikus-hezkuntzako irakasgaiari heltzeko orduan, **lanari koherentzia ematen laguntzen duten oinarrizko alderdiak hartu behar ditugu abiapuntutzat: irakasgaiaren aztergaia eta hari heltzeko modua.**

Irakasgaiaren aztergaiari erreferentzia egin aurretik, ezinbestekoa da azken hamarkadetan ezagutza-arlo honetan gertatu diren aldaketa nagusiak aipatzea. Aldaketa horietako asko curriculumeko irakasgai guztiei dagozkie; izan ere, gizarteak hezkuntzari ematen dion funtzioari, nerabezeroari buruzko ideiei, gizartean eta ekonomian gertaturiko aldaketa sakonei, ikaskuntzari buruzko ikuspegi berriei eta abarri buruzko hausnarketekin lotuta daude. Baina, plastikaren eta ikus-hezkuntzaren arloak, gainera, harreman zuzena du egungo praktika artistikoak osatzeko moduarekin. Praktika horiek arteen arteko muga gero eta lausoagoak dituzte eta beren baliabideak, euskarriak, planteamenduak eta abar gero eta azkarrago hazten dira, hein handi batean, teknologia berriek bultzatuta. Arte-praktikak barnean hartzen dituen kultur testuinguruak eraldaketa handiak izan ditu, hein handi batean informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenagatik eta beste hainbat faktore direla-eta; hala nola, kulturen arteko eraginen aniztasuna eta aberastasuna, edo aisia bizitzeko modu berriak. Testuinguru honetan, goi-kultura artistikoa ez da presentzia handia duen bakarra; kontsumitzen ditugun objektu zein irudi gehienak ere gero eta gehiago zaindutako bilgarri estetikoetan aurkezten dizkigute.

Hortaz, eta arestian adierazi dugun bezala, **plastikaren eta ikus-hezkuntzaren berezko aztergaia** honela zehatz dezakegu:

- Ikusizko arteak eta ondare kultural tradizionala eta garaikidea
- Espezifikoki artistikoa ez den ikusizko kultura edo mundua

Bestalde, irakasgaiaren oinarri teorikoaren ondorioz eta Europako curriculum-proposamen gehienekin bat, modu **orekatuan landu beharko ditugu pertsonok ekintza artistikoei eta ikusizko kulturari aurre egiteko ditugun bi erak:**

- Ekoizpenaren dimentsioa: irudien, soinuen, mugimenduaren eta abarren bitartez adieraztea, sortzea, komunikatzea...
- Hausnarketa-dimentsioa edo kritikoa: ikusizko kulturako produktuak ezagutzea, behatzea, aztertzea, interpretatzea, haiek artetzat jotzen den inguruneari dagozkion ala ez alde batera utzita.

Lantzen ari garenaren tankerako irakasgai baterako **hausnarketa-prozesuetan zentratuago dauden proposamen metodologikoei erreferentzia egitea** proposatzen dugu, irakasgai hau gehiegi oinarritu izan baita planteamendu praktikoetan. Adibidez:

- planteaturiko proiektuen bitartez honako hau bultzatzea: ikasleek ideiak azaltzea, loturak ezartzea, lortutako ezagutzak egoera berrietara transferitzea, eta abar.
- Ikasleek lan-prozesurako materialak jasotzeko erremintak (paper-zorroa, karpeta, eta abar) erabiltzea: zirriborroak, erreferentzia bisualak, hausnarketak; edo,
- hausnarketa eta eztabaida bultzatuko duten eta edukiekin loturik egongo diren irudi, testu eta dokumentu sorta zabala eta aberatsa erabiltzea.

Lan egiteko moduak oso anitzak izango dira diseinaturiko curriculum-proiektuen eta gelako programazioen arabera, baina, dena den, **honako arlo hauek jorratu eta erantzuna eman beharko diete:**

- Lengoia artistikoen baliabideak eta konbentzioak: Hemen aurki ditzakegu, adibidez, **mundu fisikoa irudikatzen arazoei** erreferentzia egiten dieten edukiak (kolorea, argia, irudiaren eta hondoaren arteko harremana...), **irudiak antolatzen baliabideak** (konposizioa eta elementuen arteko harremanak...) eta abar.
- Prozesuak, teknikak eta sormen-espazioak: hau da, **artean eta ikusizko kulturaren sortzeko prozedurak eta teknikak** lantzen dituztenak. **Lan bat egiteko prozesuari** erreferentzia egiten dioten eduki guztiak biltzen dituzte, baita

adierazpen-teknika grafiko-plastikoak, materialak, tresnak, euskarriak eta abar ere.

- Erreferente estetikoak ulertzea eta interpretatzea, bai artean, bai ikusizko kulturaren: artearen eta ikusizko kulturaren **adierazpen, komunikazio eta narrazio funtzioei** dagozkien alderdiak eta haien ulermen kritikora hurbiltzen gaituztenak, hau da, **irudiei esleituriko funtzioei** erreferentzia egiten dietenak (boterezkoak, informatiboak, pertsuasiozkoak...); **artelanen eta ikusizko adierazpenen azterketari...**

Lan egiteko modu horiek esperimentaziorako eta praktikarako espazioak sortzera bideratuko dira, lengoia artistikoen berezko baliabide teknikoak eta adierazpenekoak erabilia, baina horretaz gain, atzean dituzten hausnarketa-prozesuak garatzeko bidea ere emango dute. Horrek zera esan nahi du Fernando Hernández (Hernández 2004, 15-16) egilearen hitzetan:

- Irudietan ikusten duguna baino gehiago dagoela aintzat hartzea: horrek irudiek gordetzen dituzten diskurtsoei buruz ikertzera eramango gaitu.
- Irudiek munduari buruzko eta guri buruzko ikuspegiak nola edertzen dituzten aztertzea.
- Irudiek desberdintasun eta botere egoerei loturiko gaiak eta ideiak nola irudikatzen dituzten aztertzea (arrazismoa, etnizitatea, desberdintasun sozialak, genero-desberdintasunak, sexualak, jakintzazkoak, ikuspegi-desberdintasunak).
- Irudiak lantzea (hainbat prozedura erabilia) dauden irudiekiko erantzun eta elkarrizketa moduan.
- Norberaren nortasunarekin eta gizarte eta kultura arazoekin loturiko ikusizko kontakizunak eraikitzea (hainbat euskarri erabilia) eta horrela jarrera kritikoak eraikitzen laguntzea.
- Ikusmenaren artefaktuek begiratzen duenarengan eta begiraturiko errealitatearen gainean begiradak eta zentzuak sortzeko duten funtzioa aztertzea.
- Desberdintasun kulturek eta sozialek irudiak ikusteko moduak eta haiei buruzko interpretazioak eraikitzeko orduan betetzen duten rola aztertzea eta bereiztea.
- Ikasketa modu indibidualak jakintzaren eraikuntza kolektiboagatik ordezkatzeta.

Ikusten denez, helburua balio estetikoak eta soilik espresiboa duten objektuen sormenean bakarrik oinarrituriko plastika eta ikus-hezkuntzari buruzko ikuskerak gainditzea da, **irakasgai hau kulturari eta errealitateari buruz hausnartzeko gune bilakatzeko**. Gure kulturako arteari zein irudiari buruzko gogoeta, elkarrizketa, bilaketa eta jakin-mina sortzea ekoizpena bezain garrantzitsua da.

5.2 IRAKASLEEN ETA IKASLEEN EGITEKOA

Irakasleak ezinbesteko bitartekari dira hezkuntza-prozesuan, eta haien lana oinarrizko gaitasunen garapena bultzatzea da, irakasleari ikasketa esanguratsuak eskainita.

Hortaz, mezuaren igorle huts izateko funtzio tradizionaletik urrun, askoz ere positiboagotzat jotzen da, prestakuntzaren ikuspegitik, ikasleak ikasketa bultzatuko duten egoeren egile eta bultzatzaile gisa ikustea. Ikasketa horien bitartez, ikasleek bizi duten errealitatea ulertuko dute, beren eskemak eraikiko dituzte eta mundua modu kritikoa ikusteko eta ulertzeko modu propioa osatuko dute.

Ikasleekin norabide horretan lan egiteak bitartekari lana egitea esan nahi du: edukiak antolatzea, haien esanahiak orientatzea, lan-metodoak ikertzea eta jarduerak diseinatzea.

Plastika eta ikus-hezkuntzako irakasgaietan irakasleen lanaren xede nagusietako bat **ikusmenerako eta estetikoki atseginak diren objektuak eta artelanak ekoiztean baino oinarrizten ez diren tradizioak gainditzea** izango da; horrez gain, arteari, ikasleek erabiltzen dituzten irudiei eta produktu estetikoei buruzko hausnarketa, elkarrizketa eta jakin-mina bultzatuko da, irakasgaiaren barruan kultura eta errealitatea ulertzen lagunduko duten hausnarketa-espazioak sortzea ahalbidetuta.

Irakasleek ahal duten guztia egingo dute ikasleek bizipen esanguratsuak izan ditzaten prozesu pertsonalen bitartez, helburu konkretuak lortzen dituzten ala ez alde batera utzita. Emaitza oro, prozesu mekanikoei erantzuten dietenak kenduta, izango da baliozkoa eta konponbide guztiak izango dira positiboak, betiere, ikaslearen hausnarketa-prozesu kontziente eta koherentearen ondorio badira.

Ikasgelako giro afektiboa garrantzitsua da irakaskuntza-ikasketa prozesuetan, eta, ondorioz, irakasleek ikasleen artean integrazio eta elkarreragin handia izatea ahalbidetu beharko dute, parte-hartzea, iritzi-trukea eta erantzunak azalera bultzatuta. Zentzu horretan, prestakuntzarako balio handia du lana taldean antolatzeak, horrela talde-lana eta ikusizko adierazpenak jende askoren aurrean aurkeztea indartzen baita.

Era berean, ezinbestekoa da elkarrekiko errespetu-giroa lantzea. Giro horretan, irakasleak bideak proposatu eta irekiko ditu, alternatibak bilatzea eta ikasleek hainbat aukera eta konponbide aztertzea bultzatuko du. Ikasleek, bestalde, irakasleekiko errespetua erakutsi beharko dute, baita taldekideekiko ere, eta ikasketa-esperientzia berriak izateko gogoz egon beharko dute, prestakuntza egoki eta gustukoa jasotzeko.

5.3. IKASGELAREN KUDEAKETA

Jarduerak planteatzea

Irakasleen interesak aseko dituzten eta, aldi berean, artearen, ikusizkoaren edo jarduera grafiko-plastikoaren arloko hainbat alderdi ezagutzeko interesa piztuko dieten askotariko jarduerak planteatu behar dira. Horretarako, jarduerak ez dira gelari edo ikastetxeari soilik lotuta egongo, beste arlo batzuk ere hartu beharko dira kontuan, esaterako hiri-ingurunea edo ingurune naturala, artearekin eta arte-jarduerarekin loturiko lantokiak, edo ikusizko dokumentuak eta hedabideak, guztiek ere ikasleen bizitzan aurki ditzakegun kulturaren alderdiekin harreman zuzena izatea ahalbidetzen baitute.

Artelanetatik abiaturiko lana pizgarria izan daiteke, betiere, artelanak ez badira «kopiatu» beharreko eredu gisa aurkezten, baizik eta ikasleek hainbat aldagai ezagutzeko eta balioesteko bitarteko gisa. Adibidez, ikusizko hainbat lan aldi berean aztertzeak konparazioak egiteko aukera ematen du. Ildo horretatik, lan plastiko eta bisualen aukeraketa proposaturiko helburuetara egokitzea bilatuko dugu, eta, aldi berean, anitza izatea eta ikasleen interesetatik hurbil dauden kulturaren alderdiekin lotuta egotea.

Komenigarria da, halaber, ikasleei **hainbat materialekin, euskarrirekin, tresnarekin** esperimintatzeko aukera ematea, lengoia plastikoaren eta bisualaren hainbat elementu formalen artean dauden harremanak ikertzeko bera emango baitie. Eraldaketak egiteko eta hainbat teknika aplikatzeko prozesuetan ikertuz eta askotariko materialak esperimintatuz, lan egiteko bitartekoak eta moduak aukeratzeari buruzko erabaki autonomoak hartzen ikasiko dute.

Amaitzeko, gelan egingo diren **lan-planteamenduek «irekiak»** izan beharko dutela aipatu nahi dugu; hau da, **proposamenek ikasleei hainbat konponbide ematea ahalbidetu behar diete**. Adibidez, proposamena naturarekin lotutako marrazki bat egitea bada, ikasleei ikuspuntua edo objektua bera aukeratzen uzteak autoestimua eta erabakiak hartzeko berezko gaitasuna indartuko die.

Elkarreragina ikasgelan

Lan kooperatiboari laguntzen dioten jarduerak oso garrantzitsuak dira plastika eta ikus-hezkontzaren barruan. Jarduera bat taldean egiteak arazoei heltzeko beste modu batzuk ezagutzeko eta haiek positiboki baloratzeko aukera ematen die.

Hona hemen **taldean egin daitezkeen eta ikasleen artean emaitzak erkatzea eta sormen-trukea egitea ahalbidetuko duten jardueretako batzuk**:

- Taldean lan koordinatua egitea eta plangintza bateratzea, denborak eta materialak banatzea eta antolatzea eta abar eskatzen duten fasez osatutako proiektu baten ezaugarriak dituztenak.
- Talde baten aurrean erakusketak egitea eskatzen dutenak eta iritzi-trukea eta erkaketa bultzatzen dituztenak.

Taldeak

Oro har, talde heterogeneoa da ikasleen arteko elkarreragina eta integrazioa errazteko egokiena; gainera, taldearen aniztasunari arreta eskaintzea ere ahalbidetzen du. Dena

den, aldi baterako talde homogeneoek ere curriculumaren zenbait alderdi lantzen laguntzen dute, batez ere irakasleen esku-hartze zuzenagoa behar duten alderdiak.

Planteaturiko edukien eta jardueren arabera, hainbat ikasle-talderekin egin beharko da lan:

- **Banakako lana**, planteamenduak pertsona bakoitzaren erritmora, ikasketa-eredura eta ezaugarrietara egokitzea eskatzen duenean. Adibidez, irudi baten balizko esanahiak aztertzeke, beren proposamen artistikoetan esangurak aldatzeke aukerak aztertzeke...
- **Talde txikitan lan egitea egokia da**, adibidez, proiektu artistiko askok dituzten arazo teknikoak konpontzeke, edo proiektu kolektiboak garatzeko, esaterako, proiektu publizitarioak, logotipoak, film errazak eta abar egiteko.
- **Talde handitan** lan egitea aukeratu beharko da gaiak aurkezteko, eztabaidak antolatzeko, aldez aurreko ezagutzak antzemateko, lanak aurkezteko, proiektzioak antolatzeko eta abarrerako.

5.4 LEKUA ETA DENBORA

Plastika eta ikus-hezkuntzarako lekua

Litekeena da irakasgai honetan, besteetan baino gehiago, lanerako bitartekoak eta baldintzak erabakigarriak izatea irakasgaia bera behar bezala garatzeko. **la ezinbestekoa da gela berezi bat izatea**; alde batetik alderdi esperimentalak eta sormenezkoa lantzeko egokia (adieraztea, sortzea, komunikatzea, eta abar) eta, bestetik, erabili behar diren teknika eta material anitzak erabiltzeko aproposa izango dena; azkenik, hezkuntza-jarduera irakasgaiaren hausnarketa-alderdia lantzeko moduan antolatzea ahalbidetuko duena (behatzea, aztertzea, interpretatzea, eta abar).

Gelaren banaketak banakako lana zein taldekoa bultzatuko ditu, baita esperientzien trukea eta talde handitan erakusketak eta eztabaidak egitea ere. Espazio horrek argiztapen egokia izan beharko du, bai naturala, bai artifiziala, eta erraz iluntzeko modukoa izango da.

IKASGELAN HONAKO HAUEI EMAN BEHAR ZAIE ERANTZUNA:

- irakasgaiaren izaera esperimental eta ekoizpenekoari
- beharrezko diren teknika eta materialak erabiltzeari eta haien aniztasunari
- irakasgaiaren hausnarketa-dimentsioaren garapenari
- banakako lanari eta kolektiboari.

Ezin dugu ahaztu **bitartekoa ez dela gela bakarrik**, ezta ikastetxea eta bertako beste espazio batzuk ere (informatika gela edo proiektzio-aretoa, esaterako); kanpoaldea ere irakasgai honi dagokion lana garatzeko bitarteko horren zati izango da. Interesgarria litzateke, hortaz, jarduerak leku irekietan egitea, baita **museoak, erakusketak, arte-galeriak edo jarduera grafiko-plastikoak egiten dituzten lekuak bisitatzea ere**. Horri esker, ikasleek beren ingurune naturaleko eta kultureko hainbat alderdirekin harreman zuzena eduki ahalko dute.

Beste diziplina batzuekin bat egiteak aberastu egingo luke irakasgai honen barruko lan-prozesuen garapena. Aipatu dugun bezala, irakasgai hau modu irekian ulertzeak begirada globala izatea eskatzen du, eta hortaz, baliabide teknikoak edo ikusizko lengoaiarenak jorratu eta garatzeko gai izan beharko dugu, baita gertakizun kulturalen ulermena jorratu eta garatzeko gai ere, betiere espazioak beste diziplina batzuekin partekatzeari beldurrik izan gabe. Diziplina arteko joan-etorri horiek irakasgaia beste diziplina batzuei lotuta dauden kultur ekoizpenaren beste arlo batzuetan sartuz eta haiekin harreman aberasgarri eta anitzak –erabat beharrezkoak– izanda jorrotzen lagunduko dute. Izan ere, gaur egungo ekoizpen artistikoaren errealitatean zailtasunak daude ikus-erregistroak eta plastikoak hizkuntza idatzi, ahozko edo musikalekoetatik bereizteko, guztiak elkarren artean berez lotuta azaltzen baitira –horrela gertatzen da goi mailako ekoizpen artistikoekin zein produktu mediatikoetan erabiltzen direnekin–.

Denbora antolatzea

Denbora antolatzerakoan, ikasleak autonomia handia izan dezan bilatu behar da, eta aniztasunarekiko arreta antolatzea ere erraztu behar du irakasleak.

Denbora honako **alderdi hauen arabera planifikatuko** da:

- talde konkretua;
- ikasleen ikasketa-erritmoak;
- edukiak eta haien antolamendua;
- proposaturiko lanaren planteamendua.

Denbora banatzerakoan honako **irizpide hauek jarraituko ditugu**:

- Irakasgaiari eskainitako ordutegiaren erreferentea zabaltzea (museoetara bisitak egitea, irteerak, eta abar).
- Hainbat irakasgaitako edukiak bilduko dituzten proiektuen edo tailerren arabeko lan-saioak antolatzea.
- Lan-orduak antolatzeko unean, ikasleen autonomia bultzatzea.
- Proiektuaren eta proposamen didaktikoen garapenean zehar malgua izatea.
- Banakako eta taldekako arretarako denborak izatea.
- Lan-saio indibidualak ere aintzat hartzea.
- Talde-lanerako uneak ezartzea.
- Aste osoko denbora, ebaluazioaren iraupena, eta abar planifikatzea.

5.5 BALIABIDEAK ETA MATERIALAK

Baliabideen eta materialen erabilera ikasketa prozesuan esleitzen zaien funtzioak eta planteatu diren helburuek baldintzatzen dute. Plastika eta ikus-hezkuntzan egin beharreko lanerako hainbat eta hainbat baliabide daude eta, kasu bakoitzean, berezko interesei ondoen egokitzen zaiena aukeratu beharko da.

Materialak eta baliabide didaktikoak

Dokumentazioa eta inprimatutako baliabideak

Plastika eta ikus-hezkuntza behar bezala lantzeko inprimaturiko **baliabide eta material sorta zabala sistematikoki** erabili behar da; esaterako arte-liburuak, erakusketen katalogoak, estetikari buruzko saiakerak, teknikei buruzko eskuliburuak, aldizkarietako edo prentsako artikulua, komikiak eta, betiere, kontsulta, hausnarketa eta eztabaida bultzatuko duten materialak.

Material horiek guztiek eskaintzen duten informazioak eta aberastasunak lan-proiektuen aurrean hainbat konponbide planteatzeko aukera emango diote ikasleari, edo aurretik bururatu ez zaizkion konponbideak aurkitu ahalko ditu, baina, horrez gain, material eta baliabide horietan historian zehar hainbat kulturak artea egiteko izan dituzten moduei buruzko beharrezko informazioa aurkituko du.

Baliabide teknologikoak

Edonola ere, plastikan eta ikus-hezkuntzan lekua dute **bitarteko tradizionalenek** (diapositiba-proiektagailu bat, eretroproiektagailu bat, eta abar) zein **egungo teknologietara egokitzen joan diren bitartekoak** (argazki- edo bideo-kamerak), baita **teknologia berriek** eskaintzen dituzten erabilera eta lan aukera guztiek ere (baliabide informatikoak –softwarea zein hardwarea–, web-baliabideak, eta abar).

Edonola ere, **helburua ez da izango teknologia bera**, alegia gailu bat edo programa bat erabiltzen jakitea; aldiz, tresna horiek ideien zerbitzura egongo dira eta ez ditugu ikusiko proiektutik bereizitako tresna gisa.

Baliabide instrumentalak

Arte-praktiketan **material eta tresna ugari erabil daitezke**. Esaterako, marrazketarako baliabideak: arkatzak, pastelak, arkatz-pinturak, errotuladoreak, kartoi meheak, paperak. Pinturarako baliabideak: akuarelak, tenperak, akrilikoak, oihalak, pintzelak... Baita lan tridimentsionaletarako baliabideak ere: kolak, buztina, zura, alanbrea eta abar.

Maketak, eraldaketak, dekoratuak, matxe paperezko lanak eta abar egiterakoan erabilgarriak izan daitezkeen hondakin guztiak biltzea ere oso interesgarria izan daiteke; esaterako zurak, kartoiak, kortxo sintetikoa, oihalak, alanbreak, armaduretarako materialak, sokak, artileak, plastikoak, objektu interesgarriak zein naturatik jasotako materialak (hostoak, lurra, adarrak, harriak, eta abar).

Komenigarria da, hortaz, material eta tresna sorta zabala izatea gelan erabiltzeko, horiekin ikerketak egitea bultzatzen baita eta adierazpena eta sormena aberasten baitira. Horrek ez du esan nahi ikasleek erakusten diren material eta teknika guzti-guztiak erabili behar dituztenik, dagoen material sorta eta haiekin egin daitekeena ezagutzea da helburua, beharrezkoen iruditzen zaizkienak edo beren lanari ondoen egokitzen zaizkienak aukera ditzaten.

5.6 JARDUERAK ANTOLATZEA

Bigarren hezkuntzako etapan, ulermenarekin, interpretazio kritikoarekin, balio kulturalak hautematearekin, askotariko ekintza artistiko edo estetikoaren artean erlazio konplexuak ezartzeko gaitasunarekin, eta bakoitzaren esperientzia estetikoari edota arteak nortasun egituratzaile gisa dituen ahalmenei buruzko gogoeta egiteko gaitasunarekin loturiko curriculumaren alderdiek lehen planora igaro behar dute.

HONAKO HAUEI EMAN BEHARKO ZAIE LEHENTASUNA:

- ulermenari,
- interpretazio kritikoari,
- balio kulturalak balioesteari,
- gertakizun artistikoen eta estetikoaren artean harremanak ezartzeari,
- norberaren bizipen estetikoari eta artistikoari buruzko hausnarketari,
- ...

Horrek ez du esan nahi beste trebakuntza mota batzuk alde batera utzi behar direnik, adibidez ikasleak bere diskurtso plastiko-artistiko propioak garatzekoa, ekoizpen propioak, jasotzen dituen produktu bisualei erantzuteko edo horiekin elkarrizketan sartzeko. **Irakasleak pasibotasuna gainditzen lagunduko duten proiektu artistikoak lantzen saiatu behar du, jakin-mina eta bilaketa bultzatzeko, eta haien bitartez ideiak, sentimenduak eta norberaren nortasuna adierazteko.**

Baina, zer erantzun mota eman behar zaio jardueren antolakuntzari?

Esan bezala, komenigarria litzateke **proiektu artistikoak lantzea eta aurkeztea**. Jarraian, lan-prozesu horretarako balizko zenbait erantzun bildu ditugu:

- Helarazi beharreko edukiak nabarmentzen diren gai batetik abiatzea eta hainbat jarduera-proposamen aurkeztea, zeintzuk egingo dituzten aukera dezaten.
- Gaiaren ibilbidea hainbat bidetan antolaturiko eta hainbat amaiera posibleko historia baten modura planteatzea. Ikasle bakoitzarekin negoziatu daitezke jarraituko duen bidea eta materialak bila daitezke, zirriborraturiko asmoak betetzeko.
- Norberaren esperientziatik abiatzea, hura berrikustea, beste ikuspegi batzuekin lotzea eta emaitza ordenatzea jarraitutako prozesua nabarmenduta, eginiko jarduerak nabarmendu beharrean, izandako arazoak aipatuta lortutako emaitzak baino gehiago, eta egin dena erakutsi beharrean ibilbidean ikasitakoa jakinarazita.

Helburua plastika eta ikus-hezkuntza irakasgaia errealtateari buruz hausnartzeko gune bilakatzea da.

Hortaz, jarduerak antolatzerakoan, lehentasuna eman behar zaie helburu bat lortzearekin loturikoei eta nukleo edo oinarri baten inguruan antolaturikoei.

Bestalde, lehenasuna dute, halaber, errealitatearen ikuspegi globalagoa emango diguten jarduerak, ikasketa egoera errealekin lotzeko ahalmena dutenak, beste testuinguru batean lan egiteko prestatzen gaituztenak, erantzunen bilaketan ibilbide berezi eta ezberdinak eskainiko dizkigutenak...

Zer ezaugarri izan behar ditugu aintzat jardueretarako?

Honako hau bete beharko lukete:

- Lan artistikoen ekoizpena lantzea, artearen eta irudien ulermena eta interpretazioa lantzen den modu berean.
- Artea eta irudiak ikusi eta interpretatzeko orduan testuinguru sozial eta kulturek eta esperientzia pertsonalak duten garrantzia lantzea.
- Goi kultura artistikoko produktuekin lan egiteaz gain eguneroko bizitzan aurki ditzakegun produktu estetikoekin ere lan egitea; esaterako logotipoekin, publizitatearekin, gorputz-estetikekin eta abar.
- Ekoizpen artistikoa hausnarketarako ikerketa-prozesu gisa lantzea.

Jarduerak antolatzeari buruzko alderdi garrantzitsuak.

Lehenik eta behin, landuko den gaia aukeratu behar da; garrantzitsua da gai hori ikasleentzat interesgarria izatea eta eguneroko bizitzan eta mundu errealean dituzten kezkekin lotura izatea. Horrek haien parte-hartzea bermatuko du. Taldearen interesetatik sortutako gaiak izan daitezke; baita plastikan eta ikus-hezkuntzan ohikoak diren gaiak edo sailak ere; artean sortzen diren hainbat kezka buruzko gaiak; artista konkretuei buruzkoak, eta abar.

Aukeratu ondoren, gaiari buruz jakin nahi dugunaren inguruko zenbait hipotesi egingo ditugu eta prozesuan zehar konpondu beharreko auziak finkatuko ditugu. Puntu horretatik aurrera hasiko da lanaren garapena; une horretan, ikasleen eta irakasleen rola bereizi egingo dira.

Honako hau izango da irakasleen funtzioa:

- Hari eroalea zehaztea.
- Dokumentazioa bilatzea eta antolatzea.
- Taldeak osatzen dituzten pertsonak inplikatzeko.
- Lantzen ari denaren eta errealitatearen arteko harremanak ezartzea.
- Lanaren inguruan hausnarketa- eta jarraipen-eredu bat ezartzea.
- Prozesu globalaren laburpena egitea.

Honako hau izango da ikasleen funtzioa:

- Gidoi bat egiteko hainbat alderdi pentsatzea.
- Informazio-bilaketa egitea.
- Informazio hori antolatzea eta gidoiko alderdi guztiak bildu direla ziurtatzea.
- Prozesuari eta lanaren faseei buruzko dosierra egitea.
- Egindakoa eta ikasitakoa ebaluatzea eta hari buruzko laburpena egitea.

5.7 EDUKIAK LEHENESTEKO IRIZPIDEAK

Oinarrizko gaitasunen garapena ez dago, esan bezala, irakasgai jakin batekin lotuta. Baina, **oinarrizko gaitasun horiek funtsezko erreferentzia dira edukiak hautatu eta antolatzeko unean**, gaitasunen garapenari laguntzen diotenei lehentasuna eman beharko baitiegu.

Horrez gain, aintzat hartu beharko dugu irakasle bakoitzak curriculumeko zer edukiri ematen dien garrantzi handiena, eta ez dugu ahaztu beharko irakasgaiaren berezko aztergaia.

Edukien segida antolatzeko unean, irakasgai honen ezaugarri nagusia egitura itxia ez izatea da, ideia-sare zabal bat bezala ulertzen baita, hainbat ikuspegitik jorra daitekeena; ikuspegi horiek irakasgaiaren curriculumean proposaturiko hiru eduki-zutabeak jorratuko dituzte, honako hauek, alegia:

- Lengoaia artistikoen baliabideak eta konbentzioak.
- Prozesuak, teknikak eta sormen-espazioak.
- Erreferente estetikoak ulertzea eta interpretatzea, bai artean, bai ikusizko kulturaren.

Curriculumeko eduki-blokeak irakasleei etapa horretan landu beharreko informazioa aurkezten dieten eduki-taldeak dira. Blokeetan, ezarritako gaitasunak lortzeko egokientzat jotako edukiak adierazten dira. Bigarren hezkuntzan ikasleek, batez ere beraien ingurumen bisualarekin, begirada zorrotz eta kritikoagoa izan dezaten lortzera bideratu behar dugu gure lana.

Eduki-bloke horiek ez dute gai-zerrenda bat osatzen. Ez dira berez zentzua daukaten konpartimendutan banatutako unitateak. Irakasleek ikusiko dute nola banatu, sekuentziak ezarrita, eta beraiek arduratuko dira programazioaren garapenerako beharrezko aukeraketa egiteaz. Azkenik, esan beharra dago edukiak aurkezteko ordenak ez duela esan nahi haien artean inolako lehentasunik dagoenik.

Eduki-sekuentziak antolatzeko unean, ezin da zalantzan jarri zer nolako garrantzia duen sormen eta pentsamendu bisualerako gaitasuna duten pertsonak lortzeak, gizartearen eskariekin bat etorrita. Ikasle asko arte- eta irudi-kontsumitzaile izatera mugatzen dira eta, horregatik, hautemate- eta adierazpen-gaitasun handiagoa emango dieten eta artea sortzen eta komunikatzen lagunduko dieten bitartekoak jarri beharko ditugu haien eskura.

Aurreko hezkuntza erreformatako proposamenetan aipatuak zituzten jada premia horiek. Hala, artearen bidez adierazpena ziurtatzen zuten alderdi teknikoez eta prozesuzkoen gain, gizarteak sortu duen produktu estetikoaren gero eta sorta zabalagoa joan dira sartzen curriculumaren edukietan: komikia, zinema, publizitatea... Horiei erantsi behar zaizkie arteak berezko dituen azterketa formalerako eta teknikorako tresnak, pertsonak interpretaziorako gaitzeko asmoz. Baina, une honetan, **irakasgai honen barruan produktu estetiko sorta zabalarekin lan egiteaz gain** (jantzien modatik hasita, marken logotipoetara, gaztetxoentzako aldizkarietatik eta performanceetatik igarota...), **artearen erabilera-dimentsioa ere landu behar da**, baita hark **gizakiaren ekoizpen kulturalarekin duen lotura ere**, kulturaren artearen eta pertsonen bizitzaren artean dagoen distantzia izugarria hausteko.

5.8 EBALUAZIORAKO ORIENTABIDEAK

Plastikaren eta ikus-hezkuntzaren ebaluazioak aintzat hartu beharko ditu pertsonak arteari eta ikusizko kulturari aurre egiteko dituzten bi moduak; batetik, irudien eta objektu artistikoen hartzaile eta kontsumitzaile gisa, eta bestetik, haien egile gisa.

Hau da, **adierazpenarekin, sormenarekin, komunikazioarekin, erabilerarekin eta abarrekin loturiko alderdiak hartu beharko lituzke aintzat batetik, eta jakintzarekin, behaketarekin, azterketarekin, iruzkinarekin, interpretazioarekin eta abarrekin loturikoak bestetik.**

Era berean, aurretik aipatutako arlo honetako planteamenduak kontuan izanda, garrantzitsua da praktika artistikoa banakako ekintzat hartzen duten iraganeko ebaluazio-kontzepzioak gainditzea. Banakako ekintza hori bere artelanari bakarrik aurre egiten dion eta interpretazioa beste pertsonen esku uzten duen «jeinu artistikoaren» begirada mitikoari lotuta dago. Ikasleak lanak arrazoitzeko, aztertzeko, beste produktuekin erlazionatzeko eta abarretarako gai izan behar du, eta aurkezten zaizkion arazoan aurrean irtenbideak aukeratzen jakin behar du. Horiek guztiak aztertu beharreko alderdiak dira.

Zer ebaluatu?

Hona iritsita, interesgarria izan liteke plastikan eta ikus-hezkuntzan ebalua daitezkeen alderdien laburpena egitea:

- Irudien eta artelanen interpretazio kritikoa egitea haiek sortu diren testuinguruen barruan.
- Hainbat kulturatako arte- eta kultura-adierazpen moduen ezaugarriak aintzat hartzea.
- Ekoizpen artistikoak egitea, adierazpen-baliabide sorta zabala erabilia, betiere arrazoituta.
- Irtenbideak eta estrategiak bilatzea ikasleen ideiei, sentimenduei, emozioei, eta abar erantzuna emango dieten proiektu artistikoen bitartez.
- Arteen lan-eremu eta aplikazio-eremu anitzak ezagutzea eta baloratzea.
- Adierazpen eta manifestazio estetiko ugari dagoela jakitea eta haiek baloratzea.

Noiz ebaluatu?

Ebaluazioa **irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan integratu behar da**, eta, hori dela-eta, ez du amaierako emaitzetan soilik oinarritu behar. Irakasleei zein ikasleei aurkitutako zaitasunei buruzko informazioa eman behar die eta beren lana moldatzeko eta praktika hobetzeko hartutako erabakiak azaldu.

Ikasketan modu eraginkorrean eragiteko, ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoan zehar gauzatuko dugu. Prozesu honen hasieran, ikasleek proiektuan edo sekuentzia didaktikoan zehar landuko duten arte-arloaren gainean duten kontrol-maila zehazten lagunduko diguten **hasierako ebaluazio-jarduerak** egingo ditugu.

Jarduera horiek idatzizko proben, ahozko elkarrizketen, behaketa-ereduen, galdesorten, galderen eta abarren bitartez egin daitezke. Hasierako ebaluazioak laneko plana doitzen lagunduko digu.

EBALUAZIO JARDUERAK



Ikasketarako ebaluaziorik garrantzitsuena **prozesuaren ebaluazioa** da, sortzen diren zaitasunetan sakontzen baitu eta haiek konpontzea ahalbidetzen baitu. Hau da, aurrera egin ahala erabakietan aldaketak egiteko aukera ematen du eta, eta beharrezkoa izanez gero, zuzenketak egiteko aukera, ikasleek prozesuan arrakasta izatea errazteko.

Prestakuntzaren edo prozesuaren ebaluazioak jardueraren behaketa eta eguneroko egitekoen analisia bildu behar ditu. Hau da, ebaluazio-prozesua ez da jarduera espezifikotik zentratuko, baizik eta, hein handi batean, gelako ohiko jardueran, esaterako: esperimentazioan, konponbideak probatzean, zirriborroak eta marrazkiak egitean, idatzizko inpresioan, irakurketan, eskemetan...; horrekin, emaitzari buruzko informazioaz gain, prozesuari buruzkoa ere jasoko dugu, ikasle bakoitzaren egoera hobeto ezagutuko dugu eta lana kasuaren arabera egokitu ahal izango dugu.

Ebaluazio batutzailea irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren etapa baten amaieran emaitzak egiaztatzeko helburuarekin egiten dena da. Hainbat motatakoak izan daitezke (irudien iruzkinak, ekoizpen artistikoak, mapa kontzeptualak, galdesortak, eta abar), baina beti prozesuan zehar bildutako datuen eta behaketen osagarri gisa erabiliko da.

Ebaluaziorako tresnak

Ebaluazio-prozesuak, arestian aipatu bezala, oso konplexuak dira; hori dela-eta, **haiek gauzatzeko erabiliko diren tresnak anitzak eta askotarikoak izango dira.**

Ebaluazio-tresnak irakasleek zein ikasleek ikasketa-prozesuari buruzko datuak lortzeko erabiltzen dituzten bitartekoak dira. Zer tresna aukeratu eta erabili lortu nahi diren helburuen arabera izango da batik bat.

Nolanahi ere, tresna bera hainbat helbururekin erabil daiteke eta ebaluatzaile batek baino gehiagok erabil dezakete.

Jarraian, plastika eta ikus-hezkuntzarekin loturiko **zenbait ebaluazio-tresna** aipatuko ditugu:

- **Lan artistikoak:** proposamen jakin batzuetan oinarrituta, ikasleek beren erantzunak proiektatu beharko dituzte. Atal honen barruan prestakuntza-lanak, prozesu-lanak edo amaierako produktuaren aldakuntzak sartuko ditugu.
- **Lan-koadernoak:** lanarekin loturiko ideiak bilduko ditugu bertan, baita ikasgela barruko eta kanpoko jarduerari buruzko oharrak ere. Hausnarketa-lana

baloratzeko aukera ematen digu eta aurrerabidearen seinaleak eskaintzen ditu; gainera, ikasitakoa idatziz jasotzea ere ariketa ona da.

- **Ikusizko, ahozko eta idatzizko aurkezpenak.** Banakakoak edo taldekoak izan daitezke eta lanak prozesuan zehar edo amaitutakoan baloratzeko aukera ematen dute. Sorkuntza-prozesuaren eta taldeko gainerako kideen ekarpenen garrantzia balioesteko aukera ematen dute.
- Lan jakin baterako **auto-ebaluaziorako txantiloak**. Indarguneez eta ahuleziez jabetzen laguntzen dute, baita aurrerapen artistikoetan norberaren garapena eta garapen kreatiboa antzematen ere.
- **Lan-kontratuak:** irakasleen eta ikasleen artean eginiko hitzarmenak dira. Horietan, bi alderdiek zenbait lan-baldintza adostu betetzeko konpromisoa hartzen dute.
- **Lan-zorroa edo portafolioa.** Lan baten etapa guztiak biltzen ditu, hasieratik bukaerara eta formatu askotan egin daiteke, erabilitako elementu motaren arabera: marrazkiak, idazkiak, argazkiak... Pertsona bakoitzaren aurrerapena baloratzeko aukera emango diguten lan-prozesuko elementuak dira.

6. MATERIALEN ETA SEKUENTZIA DIDAKTIKOEN EREDUAK

Unitate didaktikoak

- Konposizioari buruzko unitate didaktikoa, DBH 4-rako; kultura arteko ikuspegiarekin egina.
<http://personal.telefonica.terra.es/web2/intercul/>
- Grabatuari, horretarako teknikei eta aplikazioei buruzko unitate didaktikoa; DBHko azken mailetara zuzendua.
<http://personal.telefonica.terra.es/web/tallergrabado/index.html>
- Argazkilaritza tradizionalaren eta digitalaren lengoaia eta prozesuak. DBHko azken mailetako ikasleen ikus-entzunezko alfabetatzerako prestakuntza-euskarria.
http://www.ite.educacion.es/pamc/pamc_2006/fotografia/
- Simetria eta erritmo bisualari buruzko oinarritzko kontzeptuak, DBHko lehenengo mailetarako.
http://www.ite.educacion.es/pamc/pamc_2004/2004_ritmo_simetria/
- Forma berriak sortzera bideratua; batez ere DBHko lehenengo mailetarako.
<http://www.ite.educacion.es/w3/eos/MaterialesEducativos/mem2003/pajaros/>
- Plastika eta ikus-hezkuntza edozein mailatan garatzeko curriculumeko materiala.
<http://contenidos.cnice.mec.es/plastica/>
- Lengoaia plastikoaren eta bisualaren elementuak, Gaudiren La Pedrera eraikinean oinarrituta. DBHko edozein mailatan landu daiteke.
<http://www.lapedreraeducacio.org/flash.htm>
- Artelanen konposizioa ulertzea, animazio interaktiboan bitartez eta haien elementu bisualenetatik abiatuta. DBHko azken urtean lantzeko.
<http://web.madritel.es/personales3/compo/index.html>

Webquest

- DBH 1-era zuzendua, animazioaren teknika zertan datzan ikasteko, plastilina diseinuen eta modelatuaren bitartez.
http://www.phpwebquest.org/wq25/webquest/soporte_tabbed_w.php?id_actividad=8705&id_pagina=1
- Graffitiaren eta poparen artean; DBH 3 eta 4-rako. Helburua arte-estilo horiei buruzko ikuspegi orokorra izatea da.
http://www.phpwebquest.org/wq25/webquest/soporte_tabbed_w.php?id_actividad=8675&id_pagina=1
- Kartelak eraikitzea, adierazpen-premien arabera; DBH 3 eta 4 mailetarako.
<http://web.educastur.princast.es/cursos/cursowqp/aplic/09146/index.htm>

7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

AGUIRRE, I., (2005) *Teorías y prácticas en educación artística*. Iruñea. Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

- Saiakera horrek arteen balioa norberaren nortasuna eraikitzen eta gainerako en nortasunarekiko sentikorrek izaten laguntzen diguten esperientzia estetikoak sortzeko duten ahalmenean dagoela defendatzen du.

FREEDMAN, K., (2002), «Cultura visual e identidad». *Cuadernos de pedagogía*, 312. zk., 2002ko apirila.

- Artikulu horretan, egungo errealitatera egokitzeko arte-heziketaren barruan gertaturiko aldaketak agertzen dira; batez ere, ikusizko kulturaren eta testuinguruaren arabera dituen esangura sozial eta kulturaletan oinarritzen da.

HERNÁNDEZ, F., (2010) *Educación y cultura visual*. Bartzelona, Octaedro.

- Testu horren bitartez, egileak arte-hezkuntzaren ikuspegietan barrena ibilbidea egingo du eta ikusizko kultura proposatuko digu arteak irakasteko eta ikasteko modu gisa.

HERNÁNDEZ, F., (2007) *Espigador@s de la cultura visual*. Bartzelona, Octaedro.

- Testu horretan, hezkuntzan eta arteetan izandako funtsezko aldaketak agertzen dira. Aldaketa horiek arteen hezkuntzan nagusi diren narratibak berrikustera eramango gaituzte. Hortik abiatuta, ikasleek eztabaidatzeko, beren buruari galderak egiteko eta jakintza eraikitzeko duten gaitasuna sendotzen duen ulermen kritikorako eta aurreformatiborako hezkuntza-planteamendu bat proposatzen da.

GIRÁLDEZ, A., (2007) *Competencia cultural y artística*. Madril, Alianza.

- Liburu honek Estatuko Lege Organikoak gaitasun honekin lotuta eginiko proposamenari dimentsio berria ematen dio. Gaitasun hau eskuratu duten ikasleen rola definitzen du, gelako edukien eta aztertzen ari garen gaitasunaren artean erlazioak bilatzen ditu eta IKTak gaitasun honetan integrazeari atal bat eskaintzen dio.

MARIN VIADEL, R., (2003), *Didáctica de la Educación Artística*. Madril, Pearson.

- Liburu honek ikusizko arteak eskolan irakasteak eta ikasteak sortzen dituen arazoak jorratzen ditu eta arte-hezkuntzako profesionalen zuzenduta dago. Artearen irakaskuntzaren kalitatea hobetzen lagun dezaketen ideia, gai eta irudi nagusiak aurkezten ditu.

OHLER JASON, (2003, otsailak 6), «Arte: la cuarta competencia básica en esta era digital». EDUTEKA, Ed. 16. 16. Hemendik jaitsia:

<http://www.eduteka.org/profeinvidad.php3?ProfInVID=0016>

- Artikulu honek gaur egun hezkuntza sistemaren barruan arte-heziketa eskaintzea beharrezkoa bilakatzearen arrazoiak azalduko dizkigu.